



kale

Elgetako aldizkaria iraila 60zk.

Goiibek



Buelta gure zereginetara

Maderas Gallastegi, s. a.

MENDI USTIAKETA ETA ZERRA MEKANIKOA

Azkarreta auzoa 48230 Elorrio (BIZKAIA)

Tel.: 94 6820568 eta Faxe: 94 6583061.

Sagardo eguna, eskerrikasko

Hau gutunau, sagardo eguna aurrera eruatzen lagundu doskuzuen danoi eskerrikasko emoteko da. Gazte-txiak ezingo zeban hau jaixoi aurrera eruan, herritar mordo batek eskeini dotzan laguntzia barik. Batzuk mahaixak laga doskuez, beste ba-tzuk sagardo kupelak ekartzeko ko-txia edo tabernatan ipintzeko egurrak laga dozkue. Jaixa aurrera eruatuko biharrezkuak diran materialak lortzen be lagundu doskue...

Eskertzekua da, tabernarixak kupelak jartzia eta errifak sal-tzen laguntzia. Hurrengo urtetan be laguntzia eskertuko gontzake.

Patatazko Tortilla txapelketan parte hartu ziñuen talde danoi be eskerrikasko emon bihar, egun honetako ekintza garrantzi-tsuena, ezingo zalako aurrera eruan zuek parte hartu barik. Ezin ahaztu, tortilla danak probau eta gero, onena zein zan erabaki zaben epainahai-kuak

Udaletzeko Kultura Batzordiai eta Udaletzeko langilliei be eskerrak emon biharrian gare. Eskatutako mahai, etxaflero, musika ekipo, garaikur etab.ak lagatzearren.

Eskerrak: Ozkarbi Elkartia, Fermin Iribar, Gaizka Bolinaga, Asier Untzetabarrenetxea, Angel Ibarluzea, Haizea Taberna, Manu Saratsua, Valentin Villa, Patxi Basauri, Tabernari Elkarte, Larre-Gain sagardotegia, Emai zerrategia, Udaletzeko langilliak, Udaletxia, Kultura Batzordia, Goibekokale aldizkarixa, Elektrotuna, Potato eta Arakajun.

Urtero moduan adin, pen-tsakera eta eritzi desberdinetako jendia batu gara plazan. Eta hau bertan parte-hartzen, ikusle moduan edo laguntzen ibili giñan danon lanai eskerrak izan da.

Eskerrikasko danoi!!

Elgetako Gaztetxia

BADIHARDUGU euskera elkartiaren logotipo-lehiaketarako oiñarrixak

Badihardugu Debarrena eta Deba-goienako herri guztietako euskalzaliak osatu dogun elkartia da. Beran helburua gure euskalkixa ikertu, indartu eta zabaltzia da. Elkartiak, beran izena eta helburuak gizartera-tzeko logotipua sortzeko lehiaketia egittia erabagi dau eta honetxek dira oiñarrixak:

- 1.- Partehartzailliak: lehiaketa honetan Deba Ibarrian bizi dan edozeiñek hartu ahal izango dau parte.
- 2.- Erabilli leikian testua: Badihardugu (Deba Ibarreko Euskera Elkartia)
- 3.- Neurrixa: DIN A4
- 4.- Koloria: egilliaren esku, baiña baltz-zurixan be aurkeztu biharko dau.
- 5.- Biharrak kartulinan edo antzerako papelian aurkeztu biharko dira.
- 6.- Epia: biharrak urrixaren 18ko eguardiko 12:00 baiño lehenago jaso biharko dira zuzenbide honen: Badihardugu Elkartia, Aldatze kalia 1-3. 20600 Eibar.
- 7.- Zelan aurkeztu: logotipuak kartazal batian sartu eta lema bat ipini. Horrekin batera, beste kartazal bat ekarri biharko da, itxitta, kanpua lemia ipinita eta barruan egilliaren izena, abizena, helbidia eta harremantarako telefono-zenbakixa.
- 8.- Sarixa 25.000 pezeta.
- 9.- Erabagi aldaeziañ urrixaren 27xa baiño lehenago kaleratuko da.
- 10.- Logotipua Badihardugu Elkartiaren esku geratuko da.
- 11.- Epaimahaixak oiñarri honetan aipatzen ez diran erabagixak hartzeko eskubidia eukiko dau.
- 13.- Lehiaketara lanen bat bialtzen daben edonork oiñarrixetan ezarrittakua ontzat hartuko dau.

Badihardugu elkartia

Burutu behar dugun apustua

Udia konturatu orduko amaittu da. Bihargiñak biharrian, ikasliak ikasten, langabiak lan billa eta Goibekokaleko lantaldia irailleko alia gertatzen. Udazkenak gauza barrixak ekarriko dittu Elgetara.

Egittetako dakauzen lanak, azkenengo hillabetetan entzun, ikusi edo irakurri dittugun proiektuen garapena ekarriko dau. Debagoieneko telebista herrixan ikusteko gure eskuetan zeguazanak egin dittugu, oiñ Udaletxiak emon bihar dittu hurrengo pausuk eta proposatutako hitzarmenak entzun eta erabaki. Laster izango dogu honen barri eta zintzo-zintzo agertuko da Goibekokalen.

Lanari ekin dotsagu baiña ez dogu burutu. Goibekokuok, herrixan kulturua bultzatzeko proposatu dogun proiektua aurrera eruatzen hasi besterik ez gara egin. Billera mordua egin dittugu honezker, deittu doskuen danekin egon gara eta herritarrek daken zalantzak en-tzuten jarraituko dogu. Zalantzei urtenbidia billatzia danon lana da eta gu behintzat oiñarri senduak emoten saiatuko gara. "Espaloia Kafe Antzokia" aurrera eruatia erabaki giñuanetik sortutako traba danak, proiektua aurrera eruateko oztopo ez dirala pentsatzen dogu. Hala eta be, laster mahai baten bueltan elkartzia litza-ke onena eta daren pega guztiei buelta emon. Goibekok horretarako prest egotiaz gain konbentzimendu osua dauka proiektua bere osotasuan ona dala eta hori arrazoitzen saiatuko gara han eta hemen.

Goibekokaleko erred. kontseilua

ESTAMPACIONES INTXORTA S.A.



AENOR



Empresa Registrada

FR-0714296

Betsaide poligonoa 2-B. lur saila. Pabilioi zk.: B9- B12. Posta Kutxa 106 48230 Elorriko

Tel.: 94 6231914 Faxa.: 94 6231928



Pintadak

1996a izango zen gure aldizkarian idatzi nueneko lehenengo aldia.

Orduan, Kultura Etxean gertatzen ari ziren hainbat gauzaren gaineko erreflexioa egin nuen. Erabilpena ez zen egokia, bada, lan leku izateaz gain nirea bailitzan zaintzen dudan etxean. Itxura denez, orduan idatzitakoak eragina izan zuen eta paretak zikintzeko ohiturak ez zuen jarraipenik izan. Paretekin batera ezta komunak, entxu-feak, argiak... erabilpen arrunterako baino ez ziren erabili.

Urte mordoska pasa dira eta denetik egon den arren (gizakiak ere bagara) badirudi arduragabeko belaunaldi berri batek berriro ere ekin diola bazterrak nahasteari, ez bakarrik Kultura Etxeko ormetan, baita gure herri maitagarri osoan ere.

Badakigu sahiestezinak direla zenbait pintada, baina egin diren modukoak izatea eta zentsuzko ezer esateko ez edukitzeak herria bera eta herritarrok iraintzen gaitu onartezina izateko punturaino helduz.

Multak aipatzen dira, ertzaintzari parte ematea... Hauek integratzeko modurik egokiena, ordea, margoketak egin dituztenei garbitu eragitea da, eta kontuz, beti egoten da eta gau-txori hauek ikusten dituen norbait.

Beste hamaika kontu esan litezke Elgetari mesederik egiten ez dion ekintza honen gainean, baina kontua ez da ponpoxokeriak idaztea, baizik eta euskaldun jatorraren bidea zein den erakustea. Ea posible den atzetik bultzaka datozen gazteek hau guztia kontuan hartzea.

Maria Elena Eztenaga



25 urte ondoren, zer?

9dazten dudan une hone-tantxe, irailaren 27ko goizaldean, dira 25 urte Txiki, Otaegi eta FRAPko beste

hiru kide fusilatu zituztela. Haien amek, senideek, tiro-burrunda ibiliko dute oraindik, belarrietan ez bada ametsetan seguru. Francok emandako azken agindu beldurgarria izan zen. Nazioartean ere jende asko izan zuen kontra, atzera egiteko eskatu zioten, manifestazioak-eta egin ziren etxean eta kanpoan, mundu zabalean... Elgetan ere bai, pentsa. Dena alferrik.

Ahaztuxeak dirudite garaiok. Aldizkari hau eskuartean hartuko duen hainbat jaiotzeko izango zen artean, bost-zortzi urtetik beherakoak ere mordoa...

Ez daukat gogoan eguna zelan zabaldu zen Euskal Herrian, baina grisa eta lainotsua gorde dut bihotzean. Elgetan Mendebala sartzen denean bezalako... hitsa, hotza, zarratua... Egun hura ez zuen Jainkoak argitu, Mendekuk baizik. Goizean lehenengo orduetatik irratian entzun genuen bost kideak hil zituztela. Ez daukat gogoan beste albiterik, ezta eskolara joan nintzenik ere. Dena itxita zegoela, bai. Irratia entzutea ere alferrik zen, bost lagun haiek ez genituen piztuko-eta. Tartean-tartean, Bergaratik etorritako jeep berdeak ikusten genituen: herriari buelta eman eta behera berriz. Uniforme haiek ez zuten egunaren lausoa arintzen. Beldurrez eta ikaraz estali baino. Eta amorrus sutu...

Orain 25 urte ere inork sinetsi ezinezko astakeria hura, burutu, burutu zuen Francok. Kito.

Harrezkero urte onak eta txarrak, denetik, izan dira. Bide luze horretan ibilitakoa ez da makala izan. Irabazitakoak, ondo kostatakoak. Eta hori ez zaigu ahaztu behar: Askok behar baita etxea altxatzeko, gero goizalde ilun batean, bibotedun bati gogoak eman diola eta dena hondatzeko!

Hau idaztea amaitzearekin batera, kondenuatuak hiltzera zeramatzenaren oroimen saminez, Zarautzen bost kanoikada bota dituzte.

Beatriz Zabalondo

kutxa

*gizarte-ekintza
obra social*



Eusko Jaurlaritzako
Kultura sailak diruz
lagundutako aldizkaria



Aldizkari honek
Elgetako Udalaren
laguntza jaso du



Aldizkari honen
argitaratzailea



Gipuzkoako foru
aldundiak diruz
lagundutako aldizkaria

GOJBKOKALE

Argitaratzailea: Goibeko K. E. Salbador kalea 2. Elgeta 20690. **Zuzendaria:** Iban Arantzabal. **Erredakzio kontseilua:** Iban Arantzabal, Haritz Gallastegi, Oxel Erostarbe, Bittor Gallastegi eta Igor Arizmendiarieta.

Erredaktoreak: Gorka Arizmendiarieta, Olaia Jimenez, Maite Mandalu-niz eta Ainara Iribar. **Maketazioa:** Bittor Gallastegi. **Administrazioa:** Susana Jimenez eta Esti Retolatza. **Publizistak:** Jone Oianguren, Miren Atxotegi eta Izaro Arrazola. (Tel.: 943.78.90.85). **Banaketa:** M. Elena Eztenaga, Ikastola. Tirada: 700 ale. **Inprimategia:** GERTU koop. (Zubillaga Oñati).

Copyright-a: EGA. **Lege-Gordailua:** SS-475/95. **ISSN:** 1135-3538.

E-mail: goibeko@topagunea.com

Goibekokalek ez du bere gain hartzen, aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Euskal Herriko Mendi Federazioaren biltzarra azaroak 5ean

Espaloia Kafe Antzokia kokatuko den aretoan izango dira ekitaldi nagusiak

Azaroak 5ean Euskal Herriko Mendi Federazioaren biltzarra izango dela eta Espaloia Kafe Antzokia izango denak bere atea irekiko ditu.

Egun honetarako mendizaleen federazioak eta Udaletxeak antolatuko ditzuten ekitaldiak ez daude guztiz zehaztuta. Goizean herri desberdinetako mendi elkarteek biltzarra izango dute. Biltzar honetan batuko diren 150 lagunek, mendi federazioko lehendakari berria aukeratu beharko dute. Duela 21 urte federazioa aurerra eramateko lanean sartutako Pako Iriondok bere postua uzteko asmoa azaldu bait du. Bai biltzarra eta baita ondoren, antolatuko duten bazkaria, Pako Iriondo-

ri omenaldia egiteko izango da. Bazkarian lauhun bat lagun batuko dira eta Udaletxeak saltzen jarriko dituen txartelak erosi ahalko ditu bertara joan nahi duenak.

Espaloia Kafe Antzoki irekita

Azaroak 5eko ekitaldi guztiak Espaloia Kafe Antzokia kokatuko den aretoan izango dira. Egun honetarako areto barrukoko lehenengo lanak eta bertara gerturatzeko bideak guztiz bukatuta egongo dira. Aretoa irekita egongo dela kontutan hartuz, aretorako Goibeko Kultur Elkarteak egin duen proposamena azalduko zaie bertara gerturatzen diren herritar guztiei.

Inork ulertu ez dituen pintadak

Irailak 7a eta 8a arteko gauean Udaletxeko arkupetan, Ozkarbi azpian, Kultur Etxean, Lasao Kalean eta Artekalen oraindik inork ulertu ez dituen pintadak margotu zituzten ezezagun batzuek.

Udaletxea Ertzantzarekin harremanetan jarri da, pintada hauen egileak nortzuk izan diren lehen bait lehen argitzeko. Dirudienez goizaldeko 04:00ak inguruan egin ziren pintadak. Pintada hauen egileak nortzuk izan diren susmoak omen dituzte zenbait herritarrek. Gertatutakoari buruzko informazio bila dabilta Udaletxeok, zerbait dakiena bertara joateko eskertuko lukete, noski anonimato osoa mantenduko luketelarik.

Aipatu pintadak ezabatu direla, honetarako 100.000pta. baino gehiago ordaindu behar izan zaio Donostiako enpresa bati. Harrian egindako pintadak ezabatu diren harren, paretean egindakoak gainera margotu dituzte. Pintadak zeuden fatxada guztiak margotzeak diru asko suposatzen zuelako.



Pintadak ulertezinak izateak piztu du herritarren haserrea

Ikastaro ugari udazkenerako

Aurtengo Udazken-Negu parterako Udaletxeko Kultur eta Ongizate sailek ikastaro desberdinak antolatu dituzte. Kultur batzordeak, buztingintza, euskera, txistu eta esku-lanen ikastaroak antolatu ditu. Erretzeari uzteko ikastaroa aldiz, Gizarte zerbitzuak antolatu du. Izen emateko azken eguna pasata egon harren, hurrengo astean Udaletxean aukera egongo da izena emateko.

Urriak 29an Elgoibarko Txistulariak

Kultur Batzordeak antolatuta Urriak 29an Elgoibarko Txistulari Bandakoan erakustaldia izango da plazan. Goizean kalejira izango da herriko kaleetan eta eguerdiko 13:00etan izango da erakustaldia.

Dantza ikastaroa

Elgetako dantza taldeak, dantza ikastaroa antolatu du. Izena eman nahi duten haurrak liburutegian dute honetarako aukera. Izena lehen bait lehen ematea komeni da.

Kirol teknikaria aukeratuta

Froga ugari pasa ondoren Oskar Karraskal arrasatear gaztea izango da kirol teknikari berria. Debagoieneko Mankomunitatean lanean ibilitakoa da eta egun erdiz egingo du lan. Irailak 22ko azken froga eta gero aukeratu zuten Oskar eta laister hasiko da lanean.

Administrari lanposturako bost pertsona bakarrik gertzen dira. Kultura, euskera eta turismo teknikarirako azken frogara aldiz 9 lagun aurkeztu ziren. Azaroko lehen egunetan postu hauek aukeratu gogoa espero da.

Elizako erretaula nagusia zaharberritzeaz

Duela denbora gutxi arte, elizako erretaula nagusiaren egilearen izena inork ez zuen ezagutzen, garai horretako berri ematen zuen liburua galduta dagoelako. Baiña orain, lan-kontratuak gordetzen dituen Oñatiko Protokolo-Artxibategian, erretaula honi buruz ziharduten idatziak aurkitu dira. Idatzi hauei esker, erre-

taularen egilea Juan de Valdés Leal dela jakin ahal izan da. Gizon hau, Murilloren atzetik, pintura barroko sevillarraren bigarren pertsonalitate handia kontsideratzen da eta horregaitik, erretaula nagusian dauden pintura-obrak barroko garaiko onentsuenentzat jo daitezke.

Hau dela eta,

Gipuzkoako Foru Aldundiak lehenasuna eman dio zaharberritzeko zain zegoen elizako erretaula nagusiari eta hurrengo asteetan hastekoak dira zaharberritze lanak. Lan hauek, Santiago eta San Andres erretaulak zaharberritu zituzten Bilboko Siglo XXI taldekoen esku utzi dira.

Lanen kostoa 14

bat milioikoa izango da. Foru Aldundiak oraingoz 8 milioiko subentzioa agindua du eta hurrengo urteko aurrekontuetan beste milioi eta laureunen bat luzatuko omen du. Dirulaguntzaren bat luzatzeko herritarrik balego, Kutxako kontu honetan sartu dezake dirua: 2101 0037 04 0105504443.

Arazoak konponduta laister hasiko dira etxeak eraikitzen

4. esparrua urbanizatzeko plangintzaren barruan, Kantoiko desbideraketa aurrera eramateko lanak atzera bota zituen Diputazioak. Diputazioak ez zuen onartzen Udaletxearen plangintza, bide honetan dauden altuera kotak zirela eta. Lanak aurrera eramateko Diputazioaren baietza behar da derrigorrez, eta Diputazioak atzera bota zuen Udaletxearen proposamena, eta Udaletxeak aldaketak egin behar izan ditu. Azkenean aldundiak egindako proposame-

na eraman da aurrera, honek Zeletaneko fabrikara sarrera oso eroso ez izatea ekarri duelarik. 4. esparrua urbanizatzeko zeuden arazoak konponduta laister hasiko dira toki honetan kokatuko diren etxebizitzak eraikitzen.

Frontoi aurreko bidea konponduta

Frontoi aurretik pasatzen den bidean konpontzeko lanak milioi bat pezetako aurrekontua izan dute. Lan hauetan bidea kon-

pontzeaz gain, bertan pilatzen ziren ur potzuak eragozteko estolderia ere berriztu dute. Frontoiko arkupean kotxeak ez

aparkatu eta arkupea oinezkoentzat bakarrik izateko kateak ere jarriko dituzte aurrerago.



Laister irekiko da bide berria, etxebizitzak eraikitzeko lanak hastekotan dira eta.

INAKI JATETXEA

Leku paregabea.
eguneko menua
Tel: 943 76 82 83

OSTATU JATETXEA

Gudarien Bide
Tel: 76 80 23
ELGETA Eguneko menua 850 pzta.
Karta.

Sagardotegia jarri zen plazan txuleta eta guzti

Aurten ere erantzuna paregabea izan da: tortillero ugari eta begira jende asko

Irailak 16an laugarren aldiz Sagardo Eguna izan genuen Elgetan. Herriko Gaztetxeak antolatutako jaiak, aurreko urteetan baino jende gehiago pilatu zuen plaza eta herriko kaleetan.

Arratsaldeko 18:00etarako prest zeuden Patata Tortilla lehiaketan parte hartu zuten 23 taldeak. Patatak moztu

eta olio berotan jartzeak ez zuen zailtasun asko izan partehartzaileentzat. Komeriak tortilari buelta ematerako orduan etorri ziren. Zazpietarako tortilla guztiak prest zeuden. Valentin, Manu eta Patxi izan ziren aurtengoan, epaimahaian jardun zutenak. Laster batean erabakita zeuzkaten aurtengo sarituak: Gure Bordakoak

lehenengo, Txirrindulari elkatekoak bigarren, hirugarren postua Kuadrillakoentzat. Originalenaren saria Pintxoren lagunak irabazi zuten. Haurren artean Gu Gaz Gu aritu zen finen sartainen artean.

Txapelketa amaituta Elektrotunakoak agertu ziren, sagardo poteoa animatzeko prest. Batzuk ezin zuten



ulertu horrelako jatzera, beste batzuk musika entzun ezinka, asko ordea gustora, tripak sagardoz bete arte behintzat.

Afariko orduan jende ugari azkenengo txartelen bila, lekurik ez zegoen ordea plazan antolatu zuten sagardotegirako 30 lagun ingururi ezetza eman behar. Makailo tortila, txuleta, gazta eta intxaurrak... eta zintzurra bustitzeko

sagardoa.

Potato eta Arakajun taldeek, dantzan jarri zituzten ordu txikiak arte Gaztetxean geratu ziren.

Urtero bezala, adin eta pentsakera desberdinetako jendeak parte hartu du antolatu diren ekintzetan. Herritarren partehartzea bultzatzeko sortutako jaiak guztiz errotuta dagoela esan daiteke.



ZABALA


Lasao 6 Elgeta
Tel.: 768075-6 768225
Faxa: 768201




HERMANOS S.A.

EHIZARAKO
ESKOPETA EGILEA

Tortilla lehiaketia



1 Gure Borda	64
2 Txirindulari elkarte	56
3 Kuadrilakuak	55
4 Elgetako EH	50
5 Pintxoren lagunak	47
6 Gabeko txoriak	40
7 PIC***	38
8 Txapela***	38
9 Elgoibarko Gaztetxia***	36
10 Gu gaz gu***	36
11 Maya	35
12 Estampaciones Intxorta	33
13 Elgetako EAJ***	31
14 Gaztetxia***	31
15 Onenak.com***	31
16 Intxorta	28
17 Deabruak	25
18 Esteban eta Monti	24
19 90.210	23
20 Elizaran***	22
21 Elgetako trikitilariak***	22
22 Ausartak***	22
23 Txorimaluak	21



Oh.: Zerenda osatzeko epaimahaiaren puntuaketa zorrotz jarraitu da. Puntu berdinak dituzten taldeen kasuan dastamenari, puntuari eta itxurari eman zaio garrantzia, hurrenkerara horretan. Izartxo batekin dauden taldeak parekatuta daude puntuetan.



GRUPO
IFA
Produkturik onenak,
prezio onenean
Tel: 76 80 98.
ALDI

Jarri zure iragarkia
Tel:78.90.85

Zer pentsau jatzu oingo urteko Sagardo Eguna? Proposamenik badakazu hurrengorako?



Igor Arriola (25 urte)
Elgoibarreko Gastetxea

Dagon giruak aluzinauta laga gaittu eta Elgoibarren holako tortilla lehiakete bat antolatu ezkereraren dagon jende erdixa be ez dot uste etorriko zanik. Gure totillia, dudan daukagu lehenengo edo bigarren geratuko dan, badaezpada be bigarren esango dot.

Uste dogu lehenengo urteko tortillia baiño piskat txarragua urten dala, ze lehenengo urtekua ezingo dogu tapau. Lehenengo izatia... Baiña esperantzia dakau behintzat azkenengo ez geratzeko. Uste dogu, gaurko egunian goizetik zerbait jartzia falta dala.



Inaite Kastano (14 urte)
Ezagun Gu

Oingo urteko Sagardo Egunian behintzat jede pillo bat ikusi dot plazan eta hori uste dot dala garrantzitsuena. Gaiñera antolatzailliek hartzen daben lan guttia eta gero uste dot gutxienez dala parte hartze hau jende guttitan partetik. Tortilla lehiaketia irazbateko be izugarrizko esperantzekin nago.



Iñaki Astizaga (39 urte)
Ezagun Gu

Disfrutatzeke eta ondo pasatzeko oso egun aproposa dala uste dot. Proposamenak uste dot lantzeko asunto bat dala, talde bat hortan lanian jarri ezkereraren uste dot lortuko litzakela beste zerbait.



Jose Luis Apendikari (54 urte)
Ezagun Gu


Oso ondo dago eguna eta animaziño politta dagola emoten dau plazan. Faltan ez dot uste ezer dagonik dagon moduan antolautu ondo dagola uste dot. Tortillia berriz guretzako ona zeguan, baiña gero ikusi bihar.



Begonia Ardanaga
Ezagun Gu

Oso politta pentsatzen jata hau egunau eta gaiñera lehenengo urtia da parte hartzen dotena tortilla lehiaketan eta uste dot nahiko dextentia urten jatala. Proposamen moduan esan neike, umiek ez dabela ezer eraten guk sagardua moduan eta igual Koka Kolia edo jarri zeinkela.

Jesus Mari Montiel (37 urte)
Monti-Oolina



Aintzane denda
zugandik gertu
behar duzun
beste



Domingo Iturbe 4-behea Tel: 943 768297

ARIES: Ez hago sasoirik onenian, gri-pia dala ta ez dala egun gehixenak ohian pasa bihako dittuk/dittun. Bitaminak hartu!

TAURUS: Eskiatzera fan hintzaneko baltzunia ondiokan be ez jatak/jatan fan. Praktika faltia dok/don ala oin-diokan ganoraz ikasteka?

GEMINI: Ikasketak ta biharra hire burukomiñ haundixenak dittuk/dittun, baiña lasai, denporiak bestepaxara batekin moldauko haiz.

CANCER: Zaindik/zaindiñ hire aho-tsa berba besteik ez dok/don egitten. Bestie be berba egitten laga. Hau izan leike urtenbide bat.

LEO: Hilabete gogorra izan badok/badon be ez arduratu, hurren-gua hobia izango da eta.

VIRGO: Ametsak amets ez dittuk/dittun berez bihurtzen, norberak be ahalegintxo bat egiñ ezker eta ilusiño apur batekin, dana eskuratzeko gertu.

LIBRA: Osasunai ez dotzak/dotzan jamonik be egitten. Holan jarraitu ezker laster suston bat edukiko dok/don.

SCORPIUS: Aman gonapetik urtetze-ko ordua be badok/badon. Parejia topatzeko moduan hago, koittau!

SAGITARIUS: Hirezako ez jaok zerezanik, topaik/topain heure burua defiduko daberen zeozer.

CAPRICORNIUS: Astuna haiz gero, gauzak ez dittuk behin ta berriz esan bihar, behin ganoraz esan ezker nahikua.

AQUARIUS: Danak heuri begira jaozak/jaozan, baten bati egiñ bihako dotzak/dotzan kasu. Ezingo dittuk/dittun holan eduki.

PISCIS: Gauza danak jakek/jakane bueltia nahiz eta hik hola ez pentsau. Preparau hadi aldaketetarako.

Jose Antonio Irazabal Jesus Etxaniz (Gure Borda)

Egiñ dozuen tortilliak sekretuik badaka? Betiko moduan egittia.
Urtero berdiña egin dozue ala aldaketan bat egiñ dotsazue? Ez, urtero bardiña egin dogu eta gaiñera sekretu bardiñakin oso postu desberdiñak euki doguz.
Etxian zer moduz moldatzen zarie sukaldian? Bueno, noizian behin etxian be saiatzen gara eta gaiñera tortilliaz gain bestelakuetan be bai.
Nun kozinatzen da hobeto etxian ala kalia? Trankillau ibiltzeko etxian hobeto baiña holako txapelketetan parte hartziarren kalia be egin geinke.

Sukaldarixan lana gustokua dozue? Profesionalki egittia politta izan bihar da.

Sagardo Eguneko gauzaik onena? Batez be, egoten dan girua eta gaiñera egun bardiñan gaztiak eta edadetuak batera ibiltzia.

Uste ziñuten aiñ kozinero onak ziñatenik?

(Jose Antonio) Banekixen, Jesus arkitekto ona zala tortillak egitten. (Jesus) Baita, nik be hau probadore ona zala. Orduan bixon batzbes-tekua ez da ain txarra urten.

Zer moduzko laguna euki dozue aldamenian? Oso ona. (elkarri)


Gaurko egunerako proposamenik badaukazue?

Proposamenik ez, gauzia da lan asko dagola hemen atzetik eta honi eusten nahiko lan gongo dala.

Argiñanon parekuak sentitzen zarie ala oindio ez? Argiñanon parekuak ez ze oindio be beran errezetekin ibiltzen gaz.

Andriai pelotia egitteko be kozinatzen dozue? Andriai pelotia egi-ttiren ez, gure nobixegaittik baiña bittartian andria be pozik geratzen da.

Zein da egiñ dozuen postuik onena? Bi urtetan txapeldunak izan gara eta beste bitxan bastanteko postu exkakak lortu doguz.



Berezitasuna:
Buztana.
Pintxo gozoak,
otartekoak.

BOLATOKI
TABERNA-JATETXEA

tel: 768284

Goio Sarasua

Igeltzeritza lanak

Teilatuak

Sukaldeak

Etxaurreak

Komunak

Otzango Behetkoa Baserria. Tel: 860156

Bixente Askasibar PIRINIOETAKO IBILBIDEAN

15 egunetan: 18 etapa eta 1.400km.

Oraingo honetan, oporren dugun abentura eta natura zalea den herriko batekin topo egin dugu eta, 15 egunetan zehar bizi izan dituenak eta ezagutu izan dituenak kontatzera gatozkizue.

Kataluniar piriniotan hasi eta nafar-piriniotan amaitzen den ibilbidearen gaineko zarraparra batzuen berri emango dizuegu.

Bixentek, aspalditik eginen ditu era honetako bidaiak: bai aste santuan baita oporretan ere. Orainarte bidelagun bat izan du baina berak dioskun bezala, gogorra egiten da oporrak era honetan bizitzea. Bere lagunei oporrak lasai-lasai igaro-tzea, parranda egitea... gustatzen zaie, eta horrelako bidaiak prestaketa fisiko behar izaten dute.

Abuztuaren erdi aldera ateratu zen Elgetatik, lo egiteko zakua, arropa, nezeserra, bizikleta, bizikleta konpontzeko tresnak eta ibilbidearen gida hartuta.

Trena hartu eta lehenengo etapa hasten den herrira abiatu zen, Llançà deritzon herrira. Kostaldean zegoela aprobetxatuz, urpean igeri egiteko astia ere topatu zuen. Behin ibilaldia hasita, era guztietako pai-

saiak eta bideak aurkitu ditu bertan. Bide guztian zehar gidaren laguntza mugitu da. Gidak etapa bakoitzari buruzko datu baliagarri guztiak ematen ditu.

Mountain-bike eraiko bizikleta dela egokiena esan digu eta bertaraten diren pertsona gehientsuenak kataluniar batek ateratako gidarekin edo bestela profesional erara abiatzen direla.

Orokorrean, bai paisaiak eta baita bideak ere oso aldakorak izan dira. Etapa guztietan, harriz betetako bideak, erreka bideak, bidezidorrak, zubiak...pasatu ditu. Zailtasuna ere aldakorra izan da. Batetik, harriz betetako bideak eta erreka bideak igaro behar izan dituelako. Guztira 5 bider zulatatu zaio gurgila, baina aurrera jarraitu du gogor.

Egunero 7tik 9 ordura bitartean egin ditu bizikleta gainean eta



Bixentek, egunero, 7 ordutik 9ra bitartean egin ditu bizikleta gainean

kilometroak berriz 50-60 tartean, beti ere pistak izan direnean.

Herriska ugari pasatu ditu ibilbidean zehar. Herri hauetan batzutan ura hartzeko, lo egiteko, siesta egiteko gelditzen zen. Jateko eta lo egiteko batera arazorik ez du izan. Ezagutu duen jendea oso jatorra dela eta berarekin oso ondo portatu direla esan digu.

Ibilbidean zehar jende ugari ezagutu du. Batetik kataluniar jendea eta baita hemen ingurukoa ere.

Bidaia honetako gauzarik azpimarragarrien paisaia eta bidean

zehar ezagutzen den jenderekiko lotura berezia aipatzen ditu Bixentek. Katalunia aldean paisaia lehorra izan da orokorrean nahiz eta berdeguneak ere badiren.

Nafar pirinioa, Isaba, Etxalar...oso berdea eta ederra izan dela esan digu, izan ere Euskal Herria ez dugu saltzeko.

Ibilbidearen 18. etapa (azkena), Hondarribian amaitzen da eta bertatik etxeraino, kostaldea zeharkatuz (Astigarraga-Zarautz-Zumaia), ere bizikletan etorri zen.

Abentura eta natura zale honen hurrengo ilusioa LOS ANGELES-NEW YORK kostatik kostarainoko ibilbidea egitea da. Berak dioskunez, 3.000km. inguru dira eta hilabete edo bi beharko dira hau burutzeko.

Hori horrela bada Goibekokalek egingo dio bultza.



Hainbat abentura eta kalentura pasa ditu Bixentek, hala ere ez zaio animorik falta hurrengo ibilbidean pentsatzeko. Los Angeles-New York egiteko indarrak izango ditu?



Ikasturtea hasi da

Aurten bederatzi dira lehenengo aldiz eskolara doazen umeak

Udako oporrak igaro ondoren eskolara bueltatzeko garaia iritsi zaie Elgetako Herri Eskolako haurrei. Guztira hirurogeita hamar haur, Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan banatuta. Horietatik bederatzi estreinekoz doaz eskolara. Euren irakasle eta eskolako zuzendari Maite Arantzabalek adierazi duenez ez da inolako arazorik egon ikasle berriekin, "oso ondo hasi dira denak".



Josu Mañarikua, Gaizka Morales, Naia Otxoa, Peio Palacios, Maria Soledad Saratsua, Jon Ugarte-buru, Maialen Zubiaurre, Ibane Zubiaurre eta Goizalde Arotzena dira Haur Hezkuntzako Lehenengo zikloko ikasle berriak. Haur hauen irakaslea Maite Arantzabal da. Maitek hogeitau urte daramatza haurrekin lanean, eta beste urte batzuekin alderatuz ez du aldaketa

nabarmenik sumatu. "Orokorrean ez da inongo arazorik izaten eta aurten ere horrela gertatzen ari da. Oso ondo hasi direla azpimarratu beharra dago". Beti egon ohi da nor edo nor egoera

berrira egiteko arazo gehiago izaten duenik baina momentuz haurren jarrera ona izan da. "Normalean ez da arazo handirik izaten. Bakarren bat badago negarrez ibiltzen dena, baina momentuz ez

dut arazorik izan".

Lehenengo aldiz eskolara doazen haurrei asko kostatzen zaie euren gurasoengandik banatzea. Ordurarte gau eta egun euren amaren edo zaintzailearen ondoan

Maite Arantzabal (Herri Eskolako zuzendaria)

"Egoera guztiz berria da umeentzat. Giroa aldatu egiten da, gauzak konpartitu egin behar dituzte eta ez daude ohituak".

ELKORO TORLOJU LANTEGIA

DEKOLETAIA ETA
ELJAZIO SISTEMAK

Berraondokua 2/g 20690 Elgeta
P.K. 256 - 20600 Eibar (Gipuzkoa)
Tel: 943 768200 - 768125 Faxa: 768203

IBAIBA-
RRIAGA
GARRAIOAK

Tel: 768072
Salbador zeharbidea 2
ELGETA

E
HARATEGIA
ASTI

San Roke 6
tel: 768168.

egoten dira eta hasiera batean gogorra da bizi-modu aldaketa. "Egoera guztiz berria da umeentzako. Giroa aldatu egiten da, gauzak konpartitu egin behar dituzte eta ez daude ohituak", adierazi zion Maite Arantzabalek Goibekokaleri, "azken finean bete beharreko arauak errespetatu behar izatea zaila da eurentzat".

Aurten 16.745 ume ikasle berri daude



Eukal

Herri osoan -D eta B erduetan gehienak. Azken urteetako datuekin gonbaratuz ikasle kopuruak gora egin du. Elgetan ere, nabarmen ez bada ere, igoera suma daiteke.

1996tik joan zen ikasturtera arte -13 ikasle izan ziren orduan- ikasle kopuruak behera egin zuen. 1997an eta 1998an zazpi ume sartu ziren, iaz lau besterik ez eta aurten berriz bederatzi. Maite Arantzabalentzat Elgetan betidanik egon izan dira horrelako gorabeherak, "urte batean talde handia suerta daiteke eta hurrengoan berriz lau pertsonako taldea.

Momentu honetan bigarren mailakoa da talderik handiena. 13 guztira".

Zuzendari gisa lau urte

Haur Hezkuntzako irakasle izateaz



gain

Herri

Eskolako zuzendaria ere bada Maite Arantzabal. Lau urte daramatza karguan, eta ez zaio batere erraza agiten irakasle eta zuzendari lanak aurrera eramatea. "Ez da oso erraza klaseak eman eta zuzendari lanak egitea. Nahiko zaila da gauza biak ondo eraman ahal izatea".

1995. urtean eskola berrira pasatu zirenetik zeresan ugari eman du eraikinak. Herri Eskolako zuzendariarentzako ez dago oso ondo egina. "Nire ustez pasilo handiak eta ikasgela txikiak egin dituzte. Lekua

aprobetxatu gabe dagoela deritzo.

Nire ustez Elgeta batentzako ikastetxe handiegia da.

Beste era bateko ikaste-


txea beharko luke Elgetak, txikiagoa". Horretaz gain beste gauza batzuk ere falta zaizkiola uste du, "jolastoki on bat bestek beste".

Hainbat zeresan ematen ari den eta emango duen beste proiektu bat Mahalan egitea nahi den Espaloia Kafe-Antzokia da. Maite Arantzabalek ez du egoki ikusten "taberna bat ikastola ondoan egitea".




HAIZEA

TABERNA



giro atsegina
lagunartean
egoteko.

Tel: 768256



Jesús Mari Montiel
**ITURGINTZA
ETA BEROGAILUAK**
Artekale 3.

Mo: 656783299 Eibar Tel: 700719

**KONPONKETAK SUKALDE
ETA BAINUGELETAN**

Guraso Elkartearen garrantzia

Haurren hezkuntzan irakasleen lana ezinbestekoa bada, ezin esan gutxiago gurasoen inguruan. Gauzak horrela, azken urte hauetan hainbat ekintza bultzatzen ari dira Guraso Elkartetik. Guraso Elkarte-ko partaide izateko nahikoa da seme-alabaren bat Elgetako Herri Eskolan ikasten aritzea, bertoko lehendakari Santi Dosunak esan bezala. "Herri Eskolan seme-alabaren bat duten guraso guztiek dute Guraso Elkartearen egoteko aukera. Bilerak antolatzen ditugunean guraso guztiei ematen diegu deialdiaren berri, eta gero euren esku geratzen da joan edo ez".

Guraso Elkarte-


ren eginkizunak argi ditu Santi Dosunak. "Badaude zenbait ekintza eskolatik kanpo egin behar direnak, hala nola Eskola Txiki Eguna -Gipuzkoako eskola txikiak antolatzen duten eguna-... eta horiek aurrera eramaten saiatzen gara". Horretaz gain, beste hainbat ekintza ere antolatzen dituzte, "ihauterietan, jaietan... hainbat gauza egiten ditugu". Guraso Elkarte-ko kideen -amen elkarte deitzen dio Santik-, eta irakasleen arteko harremana ona dela uste du Santi Dosunak. "Erizpide ezberdinak ditugun arren nahiko erlazio ona daukagu".

Azken urteotan haur kopuruan izan den

Santi Dosuna

(Gurasoen Elkarte-ko lehendakaria)

- "Kultura bultzatzeko toki bat egotearen aldekoak gara. Gainera, Elgetako gazteek behin eta berriz erakutsi dute ekintza ugari aurrera eramateko gai direla, baina ez gaude batere konforme taberna bat ipintzearekin. Ez da lekurik aproposena".



z a
fal-
t a

Santi Dosuna: "Erizpide ezberdinak ditugun arren nahiko erlazio ona daukagu irakasleekin."

beherakadak ez du larregi kezkatzen Guraso Elkarte-ko presidentea. "Gauzak asko aldatu dira. Lehen emakumea etxean egoten zen eta orain lan merkatuan sartua dago. Haurrak denbora asko kentzen dute. Dena den, azken boladan ume kopuruari eusten diogu".

Iaz aukeratu zuten Santi presidente. Hala ere, azken urte hauetan Guraso Elkarteak Udalarekin izan duen tirabiren berri badu. "Arazoa hasierako proiektua ez zutela amaitu zen. Hainbat gau-

ziren, hala nola, jolastoki egoki bat... eta hortik sortu ziren tirabira gehientsuenak. Gure helburu bakarra ikastetxea hobetzea da", adierazi zuen Santi Dosunak. Eskola azpian doan proiektuarekin ere ez dago oso ados. "Kultura bultzatzeko toki bat egotearen aldekoak gara. Gainera, Elgetako gazteek behin eta berriz erakutsi dute ekintza ugari aurrera eramateko gai direla, baina ez gaude batere konforme taberna bat ipintzearekin. Ez da lekurik aproposena".

Aperribay, s.l.
Marmoldegi eta granitoak
Pagatza indus. z/g. 20690 ELGETA
Tel. eta faxa: 943 78 90 21

Elorrio bide z/g 20690 Elgeta
Tel: 768050-789031 Faxa: 768243
TAPEM, S.A.
Trokelak eta estanzazioa
TROKEL PROGRESIBOETAN ESPEZIALDUAK

Koldo Erostarbe: "Hirugarren mailan jokalariaik askoz indartsuago sartzen dira"

Koldo Erostarbek 19 urte bete ditu aurten. Hainbat urtetan eta txikitatik Eibarren jokatu ostean, hirugarren mailan jokatzeko aukera izango du Bergarako futbol taldean. Bergara taldeko gazteenetako bat izan arren, lehen hiru partiduak hasiera-hasieratik jokatu ditu.

- Nolatan etorri zera Bergarara?

Iazko denboraldia jubeni- len azken mailan egin ondoren, maila goragoko talde batera joan beharra neukan. Eibarrek bazuen talde bat hirugarren mailan, baina ez zidaten eskaintzarik egin bertan jarraitzeko. Gainera talde hau 2.B mailara igo zen denboraldi amaieran eta orduan zailagoa zen gora igotzea. Gure taldetik jokalaria bat bakarrik igo da 2.B mailako talde horretara. Azkenean nere anaiarekin Aretxabaleta-ko preferenteko taldera joatear nintzela Bergaratik deitu zidaten eta ez nuen bitan pentsatu.

- Zer moduz zoazte? Partida guztiak jokatu ahal dituzue?

Ezin gara hobeto joan, hiru partida jokatu eta hirurak irabazi ditugu: Lemoaren aurka etxean, Zornotzari bere etxean eta Bermeoren aurka ere etxean. Gainera partida guztiak hasieratik jokatu ditut eta gustora nago.

- Nabaritu al duzu maila aldaketa?

Bai, oraindik hiru partidu jokatu ditudan arren, maila honetan jokalariaik indartsuago sartzen direla ikusi dut. Baina poliki-poliki ohitzen noa eta ez dut uste asko kostatuko zaidanik maila honetara

moldatzea.

- Zein da zuen taldearen helburua?

Permanentzia noski. Iaz mailaz jeisteko izan ziren, azken partidari lortu zutelarik salbazioa. Hirugarren mailan geratzen bagara pozik.

- Gustora al zaude taldean? Zenbat entrenamendu dituzue astean?

Bai oso gustora. Giro ona dago. Gainera denok gazteak gara, zaharrenek 25 urte inguru dituzte. Gazteenak orain arte errelean jokatzeko izan den Paco Santiago eta ni gara. Astean lau entrenamendu izaten ditugu arratsaldean; astelehen, martitzen, eguazten, eta barikuetan.

- Zer modukoak dira Bergarako zaleak?

Zaratatsuak badi- ra behintzat. Guztira 400 bazkide ditugula uste dut, egia esan nahiko presio sortzen dute epaile eta kanpoko jokalaria-riengan.

- Pentsatzekoa da maila honetan



diru pixkat ere irabaziko duzuela...

Bai baina ez daukagu sol- datarik. Emaitzen arabera kobratzen dugu. Irabazten badugu diru kopuru bat, berdintzen badugu pixkat gutxiago eta gal- duz gero ezer ez. Beti ere konbokatutako joaten baga- ra. Ez da diru asko baina ongi datorkigu gure gas- tuetarako.

- Noraino gustatuko litzaizuke iristea?

Nik ez dut helbururik. Nik futboleko jokatu- z gozatu nahi dut, gustora ibili. Goragoko maila batean futbolarik ematen didanaz disfrutatu bade- zaket hobeto, nola ez, baina momentuz konfor- me nago nagoen lekuan.



Koldo Erostarbe Tubilla hirugarren mailan joakatu zuen aurre- neko partiduaren aurretik.

Xabier Aranguren Eibarko afizionatu mailako CDR taldera joango da

Aurten garaipen bat eta bi hirugarren postu lortu ditu besteak beste

Denboraldi ona, eta batez ere abuztua, amaitu berri du Xabierrek Urnietako lasterketarekin eta jadanik datorren urtean zein taldean egongo den badaki. Bere taldeko (SUMOFIC) beste bi txirrindularirekin batera Eibar aldera joango zaigu. Eibarko CDR taldea ez da afizionatu mailan

punta-puntan dagoen taldea, baina aurtengo denboraldian gauza politak egin ditu. Esan, talde honetako txirrindulari bat laugarren doala lehendakari txapelketan. Xabierrek esan zigunez ez du beste talderen eskaintzarik jaso. Taldea goi mailakoa ez izatea Xabierrendako

mesedegarri izango da. Ez du presiorik izango eta taldeak lider sendorik ez izatean askatasun gehiago izango du lasterketetan. Bere denboraldia Lehendakari txapelketan zentratuko du, aurtengoan adin murrizketa bat jasan duen txapelketan hain zuzuen ere.

Hauek izan dira besteak beste Xabierrek lortu dituen garaipenak aurten: garaipen bat Arraten, bi aldiz 3. (Soraluze eta Deban), 4. Zumaia eta Lazkaon, 6. Beasainen, 7. Ibarra... Gipuzkoako Junior mailako sailkapenean 15 lehenengotan gelditu da.

Pilota denboraldia hasi zen joan zen zapatuan Oskarbirentzat

Klub arteko txapelketan banaka eta binaka garaipenak lortu zituzten

Jadanik eman zaio hasiera aurtengo pilota denboraldiari. Hilaren 23an, zapatua, jokatu ziren lehendabiziko partidak Elgetako frontoian. Eskuz binaka eta banaka jokatu zuten Elgetako pilotariak. Lehendabizikoan, Ubera II eta Peñalverrek 22-10 irabazi zuten Zestoako Zubizarreta eta Zendoiairen aurka. Hurrengo partidua eskuz-banakakoa izan zen, bertan Aitor Uberak 9an utzi zuen Etxabe Getariarra.

Bitartean Juan Luis Ubera "Diario Vasco" txapelketaren antolakuntzan murgiladua dago. Adierazi zigunez, seguruenik ia zoko ikusle kopuru urria ikusita, aur-

tengo edizioan ez da "Diario Vasco"-ko txapelketako partidurik antolatuko Elgetan.

Ubera II mundialera

Urte guztian egindako proben ostean, Islas de la Runionen (Afrika) urriaren 24tik azaroaren 7ra bitartean jokatu den pilota mundialerako hautatuen zerrendan sartua izan da. Xabierrek binakako partidak jokatu ditu mundial honetan. Xabierrekin batera joango diren pelotari batzuk Martinez de Eulate eta Mendiluze izango dira besteak beste.



Xabierren lehenengo mundiala izango da.

IRAMA
ELEKTRIZITATEA

Instalazioak eta mantentze lanak

24 orduko zerbitzua
tel. mugikorra: 619692336
tel: 789057-768025

ANA LIBURUDENDA

Zatoz beste dimentsio batetara!

Tel: 768078



Behe-laiñua beti altxatzen ei da, baiña gurian ez daka bape itxuraik!

Politikuek bata edo bestia proposatza, gaiñontzekuak, inguruak eta kontrakuak zer pentsatzen daberen kontutan hartu barik ez da ezertarako urtenbidia. Arazuak etxian konpondu bihar dira. Horregaittik, Paris eta Madrilleko itsu, gor eta mutuengana jua aurretik lan asko daukauegi-tteko. Lan asko egitteko bertako mutu, gor eta itsuekin. Bai terroristekin eta baita demokratekin. Baiña batez be ezer kondentzen ez dabenerkin. Bai hilketa bat ez kondenu eta herri baten erabakia errespetatzeko eskatzen dabenerkin eta baita euren indar guztiekin herrixak erabakitzeko gaitasunik ez dakala defendidu eta hilketak kondentzen dittuenekin. Danek, parlamentari-xuek, alderdi guztietako buruzagiek, alkatiek eta

zinegotzixek, guk danok aukeratu doguzen ordezkari-xek azken baten, dimitittu egin biharko leukie, edo behintzat posizionau.

Jakin deixela hiltzen dabener eta honek hilketok kondentzen ez dittuenek, herri-xa ez dagola eurenkin. Herri-xan alde beste modu batera lan egitteko ordua aspaldi heldu zala eta horrek biharrok egitten gabizen asko eta asko guztiz desaminatzen gaittuala euren jarreriak. Desanimauta, euren jarrera guk eraiki nahi dogun biderako oztopua besteik ez dalako. Kanpotik datorren oztopuak beste min egi-

tten dozgun jarrerria. Jakin deixela honek hilketok kondenu eta euren arrazoia arrazoi osua dala pentsatzen dabener herri-xa ez dagola eurenkin. Herri bat izena baiño gehixau izana dalako, gu existi-tzen gazelako eta ez gazelako Arzalluzek asmautako zibilizaziño bat.

Honek izanonek, konponbidiak bihar dittu, kolore eta modu ezberdiñetako bidiak. Mututaxuna ez dalako ez bide eta ez soluziño.

Tiruak, bonba lapak, guardia zibillan kontrolak, presuak, manifestaiñuak eta huelgak,

danak dira bi gizarte sortzeko egitten dabizen ahalegiñen seiñale. Bi gizarte egin nahi dittue, ezkerra eta eskumia alkarrekin batu egin dira, batzuk independentzia eta bestiak estatuan alde. Ala amesetan ikusten dogun independentziak edo biolentzia bariko egoeriak hemen arazoik ez dagola esan nahi dau? Batera bilau biharko dittue danok jaio edo bizi gazen herri-xan bizitzeko beste modu batzuk, konponbidiak. Hona diskusiñora heldu arte, danok askatasunian bizi arte, ez dira benetan, gure gaiñeko behe laiñuak altxauko.

Behe-laiñua altxatzen lagunduko leukie, gure izenian, euren izenian edo ez dakigu zein izenian edozer egitteko eskubidia hartu dabena behe laiño artian denbora baterako desagertuko balitzaz.

Oxel Erostarbe Tubilla

**Bi gizarte egin nahi dittue,
ezkerra eta eskumia alkarrekin
batu egin dira, batzuk
independentzia eta bestiak
estatuan alde**

Tel: 76 81 31
M^a Jesus
Arrazola

VIVO

Janari
denda

Kopax bat

Kartetan jokatzeko giro egokia

Tel: 768093

Paxi Taberna

EROSLE

M. Asun Agirre

Salbador 26. Tel: 768190



Bestiak txarraguak dirala eta...

Bestiak txarraguak dirala eta txarkeriak egittia ondo dagolakuan bizi dira askotxo hemen herrian. Eta ez batakiñ ez bestiakin bat egin gura ez dogunok danen txarkeriak aguantau bihar.

Batetik, bestiak txarraguak dirala eta kajero bat, edo autobus erretzia, amama bat biolatzia baiño delitu haundi-xaguak izango da laster. Hori erabakiko dabe demokrazia osoz demokraziaren zaintzaille ei diranak.

Bestetik, bestiak aurreko hori egitten dabelako lau tiro eta bonbia jarriko dotse Euskal

Herrixa eraikitzen ei dabizenak besteko gizaxto danei. Arrain potoluak harrapatzeia gatx samarra da, nunbaitt.

Bittartian danok izorrauta. Honi egoerioni


urtenbideik ikusi eziñik eta honek ez daukala erremedioik pentsauaz. Izan be, batzuk garbi dauke, besteko danak kartzelara sartzia dala erremedioa, ia danak sartu baiño lehen iritziz aldatu eta

sartzeko premiñia gastatzen dan, eta bestiak garbi dake, kontrakuak akabauaz eta kajeruak erretziakin bilddurtuko dirala eta iritziz aldatuko dabela.

Eta bittartekuok garbi daukagu ez batzuk eta ez bestiak ez dabela iritziz aldatuko, eta aguantau egin biharko dogula. Dana dala, iñoren txarkerixei begira egon biharrian norberanai gehitxuau begiratu ezkerro dexente hobeto ibiliko giñake danok.

Batetik, bestiak txarraguak dirala eta kajero bat, edo autobus erretzia, amama bat biolatzia baiño delitu haundi-xaguak izango da laster

Jabier Arantzeta



**KONTXI
ARRANDEGIA**
Salbador 5 Tel: 768009

SISTECO

erraminta makina

Juan Luis Berechinaga
Elgeta 20690 Pagatza Parke Ind. 2, B

**Hozkailuak eta
izozkailuak
aire
girotua.**




Salbador 21
Berraondokua 7
Tel eta faxa: 78 90 46






zapatutan eta domeketan bertako
babak eta saiheskia erreta.

tel: 768273



M^a
ESTHER

Tel: 76 81 67



Honezkero batek baiño gehixau ahaztuta euko dau aurreko lehiaketan asmau biharrekua zer dan. Hala eta be, aurreko zenbakixak urtetziaz bat heldu jakuzen karta bat baiño gehixau eta horretako bat aukeratu bihar eta ezin aukeratu. Ez dau batek be asmau eta asmau daben bakarrak ez dosku ipini ez zein dan, ez nun bizi dan ez ezebe. Idatzi zozkuna ezin asmauka ibilli gara eta eziñak eragindda kamisetok hurrengo baterako geratuko dira. Pena bat da, baiña hurrenguan izango da.

Bateronbatzuk jasotzeka be badakazuez kamisetak. Gura dozue nian badakizue nun egoten gazen. Aste akaberatan harrapatzia erreza-gua izaten da eta etorri bilddurruk barik.

Hurrengorako asmau biharrekua oso pertsonaje ezaguna da. Seguruenik batek baiño gehixau egingo zeban barre beran kontura. Baiña, zein da???????? Seguru badakixula zein dan, hala bada, idatzi Goibekokalera, **Salbador kaleko 2.** zenbakixan gare. Gura izan ezker e-posta bat be idatzi zeinke. goibeko@topagunea.com.






Erretratua: Begoña Arozena

Udako atsalde bat

Sin dala berrogei urte ingurukua da hau argazkixau. Udako atsalde askotan juaten ei zan neskato kuadrillia lehenengo erreka ingurura. Argazkixa bera lehenengo erreka gaiñeko zoruan etara zotzen neska-tuei Rosario Galdosek. Hamaika edo hamabi urte eukiko zittuen neskatillek, argazkixan ikusi geinken moduan umiak zaintzeko arduria bazakelako ordurako. Denboria pasau dan arren gauzak ez dira asko aldatu. Oindiok be udia heltzen danian Elgetako neska mutikuak herriko paragietan pasatzen dittue euren atsaldiak. Batzuk Asentzion edo Salbadorren, bestiak San Rokeoste edo presa inguruan. Neskaitilla askok eukitzen dittue oiñ be neba txikixak zaintzeko arduria. Orduko soinekuak biharrian, fraka motzak jantzi arren egiten dittuen gauzak ez dira asko aldatu.

Orduan moduan, oindiok be udazkeneko giro aldaketiak, lanera edo eskolara bueltatzeko ordua dala esan nahi dau. Goibekokaleko lantaldia be bueltau gara lanera, zuek danok bueltau zarien moduan.

Goiko illaran ezkerretik eskumara: **Begoña Askasibar, M^a Mercedes Gorosabel, Arantxa Lupiola, Maribel Agirre, Miren Maite Zabalondo eta Milagros Royo.** Beheko illaran ezkerretik eskumara: **Kontxi Gorotxategi, Xabier Lupiola, M^a Karmen Larrañaga, Jose Ignacio Ibarluzea eta Begoña Arozena.**



NAFARROA OINEZ 2000 - ZIZUR TXIKIA

Nafarroa oinez 2000
Zizur Txikia urriak 22

Elgetatik urtengo dau autobusak
Erosi txartelak Haizea
eta Patxi tabernetan



IAH FERMIN IKASTOLA